

# FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua aurrera eramateko, taldekide bakoitzaren abileziak hartuko ditugu kontuan. Bakoitzak zeregin bat edukiko du, horrela gastuak murriztuko ditugu, eta ekintzailetako batek arazoren bat izanez gero, taldekideei laguntza eskatu diezaioke.

Naiarak informatika ikasi duenez eta bere etxean MacBook Air ordenagailua duenez eta kontuan hartuta programazioak egiteko oso egokia dela, bera arduratuko da aplikazioa egiteaz eta webgunea sortzeaz. Lan hori guztia, bere etxean egingo du, bertako wifia erabiliz, horregatik ez dugu lokal baten beharra edukiko.

Nereak, berriz, itzulpengintza ikasi du eta idazten oso abila da. Hortaz, bere lana e-mail bidez bezeroei galderak, eskaerak... erantzutea izango da. Horretaz aparte, hizkuntza asko dakizkien pertsona denez, aplikazioa hizkuntza desberdinetan itzultzeaz arduratuko da, txinera, ingelesa, gaztelera, euskara, katalana eta frantsesa. Noizean behin galdetegi bat bidaliko die bezeroei haien iritzien berri edukitzeko eta webguneko aurkezpena ere berak idatziko du. Hau egiteko Apple MacBook Pro ordenagailua erabiliko du.



Lorea, artearen munduan murgilduta dagoenez eta diseinatzea gustatzen zaionez, bere esku utziko dugu aplikazioaren eta webgunearen aurkezpena. Horretarako bere Ipad pro tabletaz baliatuko da eta Naiararekin arituko da elkarlanean.

lunek jendearekin erlazionatzea gustuko du. Horregatik, enpresaren kanpo harremanen erantzule izango da. Beste enpresek gure aplikazioan iragarkiak jarri ditzaten konbentzitzen saiatuko da. Horrez gain, jendeak gure berri izan dezan influenzerrei eta beste hainbat pertsoneri aplikazioaren publizitatea egiteko eskatuko die. Hau dena bere telefonoaz, Iphone X, edo pertsonan egingo du.